# Galarretako eta Zalduondoko Ehunka Urteko Haritzen BIDE BERDEA

# RUTA VERDE de los Robles Centenarios de Galarreta y Zalduondo

Hegoaldera begira dauden Urkilla Mendilerroko hegaletan, Aizkorri-Aratzeko Parke Naturalaren ataurrean, ehunka urteko haritz ugari biltzen dituen basoa hedatzen da.

Galarretako eta Zalduondoko mendi publikoetan daudenak dira aipagarrienetako batzuk, tamaina handiko zenbait dozena zuhaitz, *Quercus petraea* (haritz kandugabea) espeziekoak. Beren artean lotuta dauden bi bidek ahalbidetzen digute Arabako erraldoi horietaraino iristea.

*En las laderas de la Sierra de Urkilla orientadas al sur, a las puertas del Parque Natural de Aizkorri-Aratz, se extiende un bosque que alberga numerosos ejemplares de robles centenarios.*

*Algunos de los más relevantes son los situados en los montes públicos de Galarreta y Zalduondo, varias decenas de árboles de gran porte, pertenecientes a la especie Quercus petraea (roble albar). Dos rutas, conectadas entre sí, nos permiten acercarnos a descubrir estos colosos de Álava.*

Deskargatu informazioa eta trackak:
**www.araba.eus/web/ibilbideberdeensarea**

*Descarga de información y tracks:*
***www.araba.eus/web/reditinerariosverdes***



© Zazpi

AGURAIN / SALVATIERRA
Arabako Lautadako turismo bulegoa
*Oficina de turismo de la Llanada Alavesa*
**945 302 931**

ARAIA
Aizkorri - Aratz parketxea
*Casa del Parque Natural de Aizkorri - Aratz*
**945 386 964**




© Imanol Amundarain Ayala

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA
CUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA

**DONEMILLAGA**ko udala
Ayuntamiento de
**SAN MILLAN**

**ZALDUONDO**ko udala
Ayuntamiento de
**ZALDUONDO**

AMF-FAM

AIZKORRI
PARKE NATURALA
PARQUE NATURAL

NATURA 2000

Arabako ibilbide berdeen sarea

Red de Itinerarios Verdes de Álava

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

## Urkilla Mendilerroko basoak
## *Los bosques de la Sierra de Urkilla*

Galarreta eta Zalduondo artean dauden haritz handi gehienak haritz kandugabeen (*Quercus petraea*) ale lepamotzak dira, hainbat eta hainbat urtez inausketak egin izanaren ondorioz neurriz kanpo loditutako enborrekoak. Ikatza lortzeko mozkintzen zituzten zuhaitzak, eta azienda bazkatzen zen adaburuen azpian. Horrenbestez, zuhaitzez hornitutako larregunea zen, hau da, abere- eta baso-jarduera uztartzen zituen gunea.

*La mayoría de los grandes robles situados entre Galarreta y Zalduondo son ejemplares trasmochos de roble albar (Quercus petraea), árboles a los que durante muchos años se realizaron podas que hacían engrosar su tronco desmesuradamente. Los árboles se trasmocharían para la obtención de carbón y bajo sus copas podía pastar el ganado. Sería por tanto una zona de pasto arbolado, es decir, un espacio en el que convivirían la actividad ganadera y forestal.*



Aizkorri - Aratz Parke Naturala
*Parque Natural de Aizkorri-Aratz*




## Sarbideak
## *Accesos*



Zalduondo



Galarreta

Galarreta eta Zalduondo Arabako ekialdean elkarren ondoan aurkitzen diren bi udalerri dira, Aguraingo koadrilakoa parte direnak. Bere kokapenari esker, Gasteizetik ordu erdiren buruan bertan egon gaitezke, Beasainetik ere 30 minuturen bueltan eta Altsasutik aldiz, 20 minututan.

*Galarreta y Zalduondo son dos municipios contiguos que se encuentran al este de Álava, en la cuadrilla de Salvatierra. Gracias a su localización es un lugar muy accesible: alrededor de 30 minutos desde Vitoria-Gasteiz, 30 minutos desde Beasain y 20 minutos desde Altsasu.*

## Bi ale berezi
## *Dos ejemplares especiales*



Beorlatzako Haritza
*Roble de Beorlatza*

Haritz kandugabeko ale guztien artean, bi nabarmentzen dira guztien gainetik. "Mindutxako Haritza" (Donemiliaga), 8 metrotik gorako perimetroarekin, eta ale hibridoa den "Beorlatzako Haritza" (Zalduondo) 7,5 metrotik gorakoarekin.

Lehenengoari buruz, Euskadi osoko perimetro handieneko haritza izan daitekeela esaten dute. Bigarrenari buruz, zuhaitzaren enbor hutsaren barruan dozena bat lagunetik gora sartzen direla.

*De entre todos estos ejemplares, hay dos que destacan sobre los demás. Son el "Abuelo de Galarreta" (San Millán), con más de 8 m de perímetro y el "Roble de Beorlatza" (Zalduondo), ejemplar híbrido con más de 7,5 m.*

*Del primero se dice que podría ser el roble de mayor perímetro de todo el País Vasco. Del segundo, que en su tronco hueco caben más de una docena de personas.*



Mindutxako Haritza
*Abuelo de Galarreta*

### Ba al zenekien...

…zenbait ikerketa-talde lanean ari direla harizti hauetan? Talde horietako batek, Santiago de Compostelako Unibertsitatetik etorritakoak, Beorlatzako haritzetako baten laginak hartu eta 600 urtetik gorako adina duela ondorioztatu du.

### *¿Sabías que...*

*…varios equipos de investigación han estado trabajando en estos robledales? Uno de ellos, procedente de la Universidad de Santiago de Compostela, ha tomado muestras de uno de los robles de Beorlatza y ha concluido que su edad supera los 600 años.*

## Zuhaitz zaharrak zainduz
## *Cuidando los viejos árboles*

Orain zuhaitzak ikatza lortzeko lantzen ez direnez, Arabako Foru Aldundia arduratzen da zuhaitz lepamotzen ale baliotsuenak zaintzeaz. Horretarako, zuhaitz zaharren kontserbazio-arloko espezialistek inausketa selektiboak eta bakantzeak egiten dituzte zuhaitzetan eta haien ingurunean, beste ale batzuen konkurrentzia murriztuz.

Gainera, zuhaitz horiek hiltzen direnean, ez dira basotik kentzen eta biodibertsitatearen gordailu izaten jarraitzen dute, organismo ugarirentzat baliagarria baita habitat edo elikagai gisa haien zura: onddoak, iratzeak, intsektuak, hegaztiak, anfibioak, narrastiak, ugaztun txikiak…

*Ahora que ya no se laborean los árboles para la obtención del carbón, la Diputación Foral de Álava se encarga de cuidar los ejemplares de árboles trasmochos más valiosos . Para ello, especialistas en la conservación de árboles viejos realizan podas selectivas y aclareos en los propios árboles y su entorno, reduciendo la competencia de otros ejemplares.*

*Además, cuando estos árboles mueren, no se retiran del bosque y siguen siendo reservorio de biodiversidad, ya que su madera sirve de hábitat o alimento a gran cantidad de organismos: hongos, helechos, insectos, aves, anfibios, reptiles, pequeños mamíferos…*



© Doctor árbol



# GALARRETAKO EHUNKA URTEKO HARITZEN BIDEZIDORRA

## *SENDA DE LOS ROBLES CENTENARIOS DE GALARRETA*

SL-A 3008

**0 km. SAN PABLO.** Ibilbideari ekingo diogu Ipar norabidean, hesia zeharkatu eta eskuineko pista hartuko dugu.

**0.6 km. BIDEBANATZEA.** Eskuineko desbideratzea ez dugu kontuan hartuko eta pistatik jarraituko dugu Ipar norabidean.

**1.4 km. HARITZLEHOR.** Haritz handien artean iritsiko gara Otxarango txabolaraino, eta gure eskuinetara utzi eta aurrerantz jarraituko dugu.

**2.6 km. MINDUTXA.** Aurrerantz jarraituko dugu soilgune batera iritsi arte, eta bertan agertuko zaigu Mindutxako Haritza. Betetako bidean atzera egingo dugu aurreko bidegurutzeraino iritsi arte, eta Ipar Ekialde norabidea hartuko dugu, Estibarriko erreka zeharkatzen duen pistatik.

**3.7 km. BASAKAITZ.** Haritzen artean jarraituko dugu eta Basakaitzeko erreka zeharkatu ondoren Galarretara iritsi gaitezke pagadian barrena edo Zalduondoko haritzetara joan, malda handian gora doan suebakitik.

***Km 0. SAN PABLO.*** *Iniciamos el recorrido en dirección N, atravesamos la barrera y tomamos la pista de la derecha.*

***Km 0,6. BIFURCACIÓN.*** *Obviamos el desvío a la derecha y continuamos por la pista en dirección N.*

***Km 1,4. HARITZLEHOR.*** *Entre grandes robles llegamos hasta la txabola de Otxaran, que debemos dejar a nuestra derecha y continuar de frente.*

***Km 2,6. MINDUTXA.*** *Seguimos de frente hasta llegar a un claro en el que surge "El Abuelo de Galarreta". Volvemos sobre nuestros pasos hasta el cruce anterior y tomamos dirección NE, por la pista que atraviesa el arroyo Estibarri.*

***Km 3,7. BASAKAITZ.*** *Continuamos entre robles y tras atravesar el arroyo Basakaitz, podemos volver a Galarreta por el hayedo o acceder a los robles de Zalduondo, por el cortafuegos que asciende en fuerte pendiente.*




| | | | |
|---|---|---|---|
| Distantzia | 6,2 km | Ingurunea | 2 |
| Denbora | 2h | Ibilbidea | 1 |
| Igoera | 250 m | Ahalegina | 2 |
| Jaitsiera | 250 m | Lekualdatzea | 2 |



# ZALDUONDOKO EHUNKA URTEKO HARITZEN BIDEZIDORRA

## *SENDA DE LOS ROBLES CENTENARIOS DE ZALDUONDO*

SL-A 3009

**0 km. MALPASO.** Parkingetik abiatuta, basoan sartuko gara PR-A 13 (Posta Bidea) bidetik. GR 25 bidea ez dugu kontuan hartuko eta PR bidetik jarraituko dugu 900 metro inguru, eta erreken gainetik bi oinzubi igaro ondoren, PR-A 13 bidea utziko dugu, Urdasakonen.

**1 km. URDASAKON.** Mendebalderantz jarraituko dugu pista zabal batera iritsi arte, eta bertan Iparralderantz hartu, linea elektrikoaren azpitik igaro eta Mendizabalgo bidegurutzera iritsiko gara.

**1.9 km. MENDIZABAL.** Igotzen jarraituko dugu Beorlatzara iritsi arte, eta han izango ditugu zain haritz ikusgarrienak. Metro batzuk jarraituko dugu aurrerantz, berehala ezkerretara desbideratu arte, eta haritz handien artean jaitsiko gara.

**2.8 km. BIDEGURUTZEA.** Mendizabal alderantz jarrai dezakegu eta Malpasora itzuli, edo Galarretako haritzak bisitatzea hautatu.

***Km 0. MALPASO****. Partiendo del parking nos adentramos en el bosque siguiendo el PR-A 13, Camino de Postas. Obviamos el GR 25 y continuamos por el PR unos 900 m, para tras cruzar 2 pasarelas sobre los arroyos abandonar el PR-A 13, en Urdasakon.*

***Km 1. URDASAKON****. Continuamos hacia el W hasta alcanzar una amplia pista, donde giramos dirección N, Pasaremos bajo el tendido eléctrico y alcanzamos el cruce de Mendizabal.*

***Km 1,9. MENDIZABAL****. Continuamos ascendiendo hasta alcanzar Beorlatza, donde nos esperan los robles más espectaculares. Seguimos unos metros de frente para desviarnos enseguida a la izquierda y descender entre grandes robles.*

***Km 2,8. DESVÍO A MINDUTXA****. Podemos continuar hacia Mendizabal y volver a Malpaso u optar por visitar los robles de Galarreta.*




| | | | |
|---|---|---|---|
| Distantzia | 5,2 km | Ingurunea | 2 |
| Denbora | 1h 40' | Ibilbidea | 1 |
| Igoera | 176 m | Ahalegina | 2 |
| Jaitsiera | 165 m | Lekualdatzea | 2 |

# BI BIDEZIDORRAK BATUZ

## *UNIENDO LAS DOS SENDAS*



© Zazpi

Inguruan Arabako Ibilbide Berdeen Sareko zenbait bide egoteak luzera eta zailtasun desberdineko ibilbideak egitea ahalbidetzen digu. Horrela, 12 kilometrotako zirkulu-formako ibilbide batekin elkartu ditzakegu bi bidezidorrak, PR-A 13 Bidexkaren zati bat erabiliz. Malpaso eta Galarreta lotzen dituen GR 25 Bidexkaren tartetik ere itxi daiteke zirkuitua, ibilbide gogorragoarekin, 14,3 kilometrokoa.

*La existencia de varias rutas de la Red de Itinerarios Verdes de Álava en el entorno nos permite realizar recorridos de distinta longitud y dificultad. Así, podemos unir las dos sendas en un recorrido circular de 12 km, utilizando un tramo del Sendero PR-A 13. También se puede cerrar el circuito por el tramo del Sendero GR 25 que une Malpaso y Galarreta, con un recorrido más exigente, de 14,3 km.*

## Legenda / *Leyenda*

- SL-A 3008 Galarretako Ehunka Urteko Haritzen bidezidorra — *SL-A 3008 Senda de los Robles Centenarios de Galarreta*
- SL-A 3009 Zalduondoko Ehunka Urteko Haritzen bidezidorra — *SL-A 3009 Senda de los Robles Centenarios de Zalduondo*
- Loturak — *Conexiones*
- Donejakue Bidea — *Camino de Santiago*
- Ehunka Urteko Haritza — *Roble Centenario*
- Bestelako Ehunka Urteko Haritzak — *Otros Robles Centenarios*
- GR 25 Arabako Lautadako Bira — *GR 25 Vuelta a la Llanada Alavesa*
- PR - A13 Posten erregebidea — *PR - A13 Camino Real de las Postas*
- Aizkorri-Aratz Parke Naturala — *Parque Natural de Aizkorri-Aratz*
- Erabilpen Publikoko Mendiak — *Montes de Utilidad Pública (Galarreta)*
- Erabilpen Publikoko Mendiak — *Montes de Utilidad Pública (Zalduondo)*
- Eliza/Baseliza — *Iglesia/Ermita*
- Aintzineko galtzada — *Antigua calzada*
- Zubia — *Puente*
- Iturria — *Fuente*
- Gurutzea — *Cruz*
- Monumentua — *Monumento*
- Museoa — *Museo*
- Aparkalekua — *Aparcamiento*
- Taberna — *Bar*
- Lo egiteko lekua — *Alojamiento*




**MIDE**

**MIDEa ibilbideek eskatzen duten maila teknikoa eta fisikoa neurtzen duen metodoa da. Balioak 1etik 5era doaz, zailtasun txikienetik handienera.**

*MIDE es un método para medir la dificultad técnica y exigencia física de los senderos, mediante valores del 1 al 5, de menor a mayor dificultad.*

- INGURUNEko gogortasuna — *Severidad del MEDIO NATURAL*
- IBILBIDEan orientatzeko zailtasuna — *Dificultad de orientarse en el ITINERARIO*
- Beharrezko AHALEGINA — *Cantidad de ESFUERZO necesario*
- LEKUALDATZEko zailtasuna — *Dificultad en el DESPLAZAMIENTO*

112 SOS DEIAK

- Ingurunea zaindu — *Cuida el entorno*
- Oihanbideak dira, eguraldi txarrarekin lokatza egon liteke — *Son caminos forestales, los días lluviosos podría estar embarrado*
- Behar bezala jantzita joan — *Equípate con la indumentaria adecuada*

**ADI IBILI! *¡NO OLVIDES!***